



## AZTERKETA URODINAMIKOA

### Zer da azterketa urodinamikoa?

Azterketa urodinamikoak egiten dira jakiteko maskuriak eta esfinterrek nola funtzionatzen duten, kontuan hartuta txiza biltzeko eta kanporatzeko daukaten ahalmena.

Bi proba egiten dira:

- Fluxumetria
- Urodinamika

### Nola egiten da urodinamika?

Urodinamika proban modu artifizialean erreproduzitzen da zure maskuriaren betetzea eta hustea. Horretarako, maskuria likidoz beteko dugu uretra-hodian ezarritako kalibre txikiko zunda batekin, eta horrek, ondesteko zunda batekin eta elektrodoekin batera, zure maskuriak sortzen dituen presioak neurtuko ditu.

### Zer egin behar dut probaren aurretik?

- Proba egin aurreko gauean, ipurditik garbitasun-enema bat jarri behar duzu. Enema kontsultan emango dizute aldeztu aurretik.
- Ez da beharrezkoa baraurik etortzea.
- Proba egin aurretik fluxometria bat egingo dizute; horrenbestez, zita-orduaren aurreko bi orduetan bi edo hiru baso ur edan txizagura izateko.

### Nola egingo didate proba?

- Aldeztu aurretik fluxometria bat egingo dizute: txiza neurtzen duen komun-ontzi batean txiza egin behar da.
- Kalibre txikiko bi zunda ezarriko dizkizute: bata uretran eta bestea uzkiari.
- Uretrako zundaren bidez likidoa pasatuko da maskurira, maskuriaren presioa eta edukiera neurtzeko.
- Proba ez da mingarria; apur bat deserosoa gerta liteke. 30-40 minutu inguru irauten du.

### Zer egin behar dut probaren ondoren?

- Betiko bizimodua egin dezakezu.
- Ur asko edan behar duzu proba egin ondoren, egun osoan.

### Kontuan izan beharrekoak:

- Hilekoarekin egoteak ez du eragozpenik sortzen proba urodinamikoak egiteko.
- HAURDUN bazaude, jakinaraz ezazu zita ematen dizutenean.

### Non egingo didate proba?

ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO Kanpo-kontsulten eraikinean, 7. solairua - Urologiako Zerbitzua